

1262 – Harremanak euskaltegian, adimen emozionalaren bidetik

Informazio orokorra

Data	2026ko uztailaren 20, 21, 22 eta 23an
Orduetgia	09:00-14:00
Lekua	Bilboko Euskararen Etxea
Iraupena	20 ordu
Ikastaro-mota	Aurrez aurrekoa
Hizkuntza	Euskara
Hartzaileak	Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak, baita interesaturik dagoen oro ere, plaza-kopurua bete arte.
Aurrematrikula	2026ko martxoaren 16tik apirilaren 15era
Matrikularen prezioa	57,31 €

Irakaslea



Komunikazio Ez Bortitzeko hezitzailea, *Non violent communication* zentroak ziurtatua. Gizarte Hezkuntzako diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua.

Nerea Mendizabal Etxeberria

Ikastaroaren deskribapena

Ikas-irakas prozesuan inplikaturako irakasleek euskaltegirako helburu eta helmugak erdiesteko, zenbait harreman garatzen dituzte (ikasleekin, lankideekin, euskara-teknikariekin eta beste hainbat eragilerekin) eta, sarritan, zailtasunak, gatazkak eta emozio ezberdinak sortzen dira prozesu zein harreman horietan.

Harreman horietan komunikazioa eta erlazioa bera elikatzeke, lagungarria da estrategia, baliabide eta lan-tresna zehatzak eskuratzea, euskara-irakaslea gai izan dadin ikas-irakas egoera konplexuetan erabakiak hartzeko, emozioak erregulatzen ikasteko, gatazkak kudeatzeko eta ikasgelan giro egokia sortzeko.

Helburu orokorra

Ikastaro honen helburua izango da harremanak zaintzen ikastea eta norberaren ekarpenak eraginkorragoak izan daitezen bidea urratzen hastea.

Helburu zehatzak

- Euskara-irakasleek aurre egin beharreko ikas-irakas egoera konplexuen inguruko hausnarketa sustatzea.
- Sentimenduak eta emozioak kudeatzeko estrategiak lantzea.
- Komunikazio Ez Bortitzaren prozedura oinarri hartuta, ingurukoengana gerturatzeko eta helmuga ditugun helburuak erdiesteko baliagarri izan litezkeen hitz egiteko zein entzuteko moduak ezagutzea.
- Kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, eraginkortasunean trebatzea.
- Elkarbizitza-giroa eta erlazio desberdinak zaintzeko (lankide, ikasle...) estrategiak garatzea.
- Bestearen hitzak entzun eta jarrerak ulertzeko eta norberari gertatzen zaiona ere adierazi ahal izateko baliabideak ezagutzea.

Programa

Edukiak	Eskola-ordu kopurua
○ Gogoeta, erabakiak eta irtenbideak	1
○ Erlazioetako oinarrizko elementuak	2
○ Elkar ulertzeko adierazpen- eta entzumen-prozesua	6
○ Nola zaindu harremanak eta eraginkortasuna	5
○ Gatazken kudeaketa	6
GUZTIRA	20

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoen bidez euskara-irakasleek egunerokoan bizi dituzten hainbat egoera aztertu eta irtenbideetan sakonduko da.

Ebaluazioa

Irakasleak emandako kalifikazioan oinarritutako ebaluazioa izango da.

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa izango da:

- Irakaslearen ebaluazioan GAI kalifikazioa izatea.
- Gutxienez, % 80ko asistentzia izatea.

Bibliografia:

Rosenberg M.B. – Martiartu, D. (2021). *Komunikazio Ez Bortitza - Bizi-hizkuntza bat*. (Itzulp.). Txatxilipurdi.

Mendizabal Etxeberria, N. (2018). *Komunikazio Ez Bortitza*. Administrazioan Euskaraz, 99. 21-23 or.